

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu titulua eskuratzeko froga librean deialdia argitaratu du Hezkuntzak

Lehendabiziko deialdian parte hartzeko izena emateko epea urtarrilaren 8an zabalduko da eta maiatzaren 6an bigarren deialdirako, azterketak otsailaren 4an eta ekainaren 5ean izanen dira

Astelehena, 2018.eko abenduak 10

Hezkuntza Departamentuak [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) argitaratu du gaur 18 urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua zuzenean eskuratzeko froga librean deialdia. Azterketak bi deialdi izango ditu; lehendabizikoa otsailaren 4an gauzatuko da eta bigarrena ekainaren 5ean. Aurreneko deialdirako izen-ematea urtarrilaren 8tik 18ra bitartean izanen da eta, maiatzaren 6tik 17ra bigarrenkoa.

Azterketa egin nahi dutenek Iruñeko "Felix Urabayan" Nafarroako Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Institutuko (NHBHI) idazkaritzan eman dezakete izena, baita Hezkuntza Departamentuan zein deialdiaren oinarrietan jasotako gainontzeko lekuetan ere.

Azterketa

18 urtetik gorako pertsonen modu zuzenean eskuratu ahal izango dute DBHko titulua ezarritako frogak gainditu ostean. Frogek hiru zati izanen dituzte: komunikazioa, zientzia eta teknologia eta gizarte gaiak. Azterketa egun bakarrean egingen da, goiz eta arratsaldean.

Frogak goizeko 10:00etan hasiko dira zientzia eta teknologia zein gizarte gaietako ariketekin; arratsaldean, 16:00etatik aitzinera, komunikazio arloko atala burutuko da. Azterketen emaitzak argitaratzeko eguna azterketa egunean bertan jakinaraziko du Tribunalak.